

## Hara, nola pasaitten gittuan San Juanak

**K**aixo oñatiar maitiok!

Orainguan alaitasun haundiz nator, bada San Juanetako ipuin batzuk esanaz. Badakizue, San Juanak alaiak izaten dirala, eta hala be, gure gazte sasoiari gehixau.

Goizian goiz, berbenak be egiten ziran goizeko inuntza hartuaz gañera, batzuetan; lagun pillatxuak juaten giñan; batzuk San Juan aldera; beste batzuk San Martin aldera; beste batzuk beste lekuren batera; galleta batzuk eta edari goxo batekin juaten giñan, eta argazkian ikusten dozen bezela, filarmonikiarekin zarata batzuk ataraz, eta abestuz be bai, holaxe ibilli eder bat egin eta eguardirako etxera.

Arratsaldian berriz San Juanera, Elizan sartu-urten bat egin limosnatxo bat botiaz, eta zelaira juaten giñan beste dantza-aldi bat egiñera, danbolinian, amaitekuak jo arte.

Danbolitteruak, ohitura eukain, San Juanetik jaisten ziranian Unibertsidade aurrian

soñua beste puskatxo bat joto, argazkian ikusten dozen moduan. Urrengo eguna be zoragarria izaten zan, aurreko eguneko kontuak esanaz.

Ba halaxe, guk ez geben liburu eta karpetarik besapeian ebiltzen, jostarratza baizik. Ez da derrigorrezkoa ainbeste

ikastia; gutxiagokin bizimodua atara dogu eta beste batzuk baño gutxiago gariela bururatu barik. Alkar maitatu gaitzen danok eta danontzat pakea ekarten saiatu gaitzen. Urrengo arte

Felisa Enparantza  
"Felisatxo"



### San Juanetako abesti zahar bat


San Juan San Juan berde  
danbolitterua,  
kuartillo bat  
ardau eranda  
jo deigun soñua.

Bai bai bai bai  
ez ez ez ez  
pagia artuta dana gaztauta  
etxera etorri ez.



**Argazki honeittan dauzenak, bakoitzen sendiak eta lagunak ezagutuko daue:**

**Unibersidade aurrian dauen argazkia oso zaharra da, 70 urte gutxienaz. Agerketan diranak: Luis Maiztegi, Esteban Oñate, Joxe Iño, krisketiarri helduta dauena Benigno Milikua.**



**ZUHAITZ  
ATEAK**

ATEAK, LEIHOAK, TARIMAK,  
PARKETAK, HORMAN SARTUTAKO ARMAIRUAK, ATE  
KO-RREDIZOAK, ...

**ERAKUSKETA :**

Kale Zaharra, 40 behea  
Tfnoa. 78 30 93 - OÑATI

